

## GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y  
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO  
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN  
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## 2012ko Nafarroaren Egunaren ekitaldiak hasiko dira asteburu honetan Jauregirako bisita gidatuekin eta "Tutera Hiria" jota-lehiaketarekin

*Doako plazak geratzen dira oraindik Jauregirako bisiten ziklorako eta baita jota-lehiaketarako sarrerak ere, 5 euroan*

Viernes, 23 de noviembre de 2012

Larunbat honetan, azaroak 24, [2012ko Nafarroako Egunaren ekitaldiak](#) hasiko dira "[Nafarroako Jauregiak atek zabaltzen ditu](#)" doako bisita gidatuen zikloarekin, abenduaren 2ra arte luzatuko dena. 800 bat pertsonak egin dute erreserba, baina oraindik plaza batzuk osatzeke daude.

Bisitak taldeka egingo dira eta 80 minutu iraungo dute. Astelehenetik ostiralera 17:00 etatik 20:00ak arte egingo dira eta larunbat, igande eta jaiegunetan 11:00etatik 14:00ak arte eta 17:00etatik 20:00ak arte. Ibilbideetan parte hartzeko beharrezkoa da alde zuzenetik izena ematea 012-Infolocal

telefonora (0,34 euro dei bakoitza) edo 948 217 012 telefonora dei eginez. Bi zenbakietara deitzeko ordutegia astelehenetik ostiralera 08:00etatik 19:00ak arte da eta larunbatetan 09:30etik 13:30era.

Gainera, igande honetan, azaroak 25, 17:00etan, "[Tutera Hiriko 6. jota-lehiaketa](#)" egingo da Tuterako Gaztambide antzokian. Ekitaldia Castel Ruiz enpresako erakunde publikoak eta Tuterako jotaren Batzordeak antolatzen dute, Nafarroako Gobernuaren babesarekin.

[42 jotarik parte hartuko dute 10 mailatan banatuta](#), haien artean Foru Komunitateko Saria, eta sarrerak 5 euroan eros daitezke (erdia baino gehiago saldu dira jada). Aldez aurretik Udalaren HAZen (Herritarrentzako Arreta Zerbitzua), Lourdesko auzoko HAZen, Castel Ruizen edo [www.castelruiz.es](http://www.castelruiz.es) eta [www.ticketmaster.es](http://www.ticketmaster.es) webguneetan eros daitezke. Soberan dauden sarrerak ordubete lehenago erosi ahalko dira antzokiko leihatilan ikuskizunaren egun berean bertan. Navarro



Jauregiaren ate irekiko jardunaldien iragarkia.

Televisiónek lehiaketa horren finala datorren asteartean, azaroak 27, 16:00etan diferituan emitituko duela aurreikusita dago.

### **Gazte Jaialdirako, Tuterako kontzerturako eta Nazioen Jaialdirako sarrerak**

Bestalde, [Nafarroako Egunaren Gazte Jaialdirako](#) sarrerak salgai daude jada. Jaialdi hori larunbatean, abenduak 1, egingo da Iruñeko Anaitasuna pabiloian eta Bongo Botrako, Rulo y la contrabanda, Huecco, Miss Cafeína eta Sonic Toys musika-ataldeak ariko dira bertan. [Nafarroako Gazte Txartelaren](#) jabeek sarrera [CajaRuralen edozein bulegotan](#) eros dezakete 10 euroan. Interesa duten gainerako pertsonak 15 euroko sarrerak erosi ahal izango dituzte Ticketmaster Sarean ([www.ticketmaster.es](http://www.ticketmaster.es) eta 902 150 025 telefonoa); Carrefour-en; Halcón Bidaiak, San Fermin Bidaiak eta Divertis Bidaiak-en; Infiernito Guitar Shop-en; Iruñeko Ulzama eta Rockefor tabernetan; Barañaingo Sibemol tabernan eta Atarrabiako The Indian's garagardotegian. Joan-etorriak errazteko, antolakuntzak autobus-zerbitzu bat jarri du Tuteran, Azkoien, Tafalla eta Lizarratik aterata. Erreserbak [Divertis Bidaiak](#)en egin daitezke.

Abenduaren 2an, igandea, Tuterako Gaztambide antzokian Nafarroako Ganbera Abesbatzak interpretatuko duen "Nafarroako historiaren lau une nagusietako musika (1212, 1512, 1812 y 2012)" kontzertuari dagokionez, sarrerak 5 euroan izango dira eta honako leku hauetan eskura daitezke: Udalaren HAZan (Herritarrentzako Arreta Zerbitzua), Lourdesko auzoko HAZen, Castel Ruizen edo [www.castelruiz.es](http://www.castelruiz.es) eta [www.ticketmaster.es](http://www.ticketmaster.es) webguneetan. Navarra Televisiónek kontzertu hori diferituan emitituko du abenduaren 3an, 13:00ak aldera, Nafarroako Urrezko Domina emateko ekitaldiaren zuzeneko emanaldia amaitzean.

Azkenik, Burlatako kultur etxean, abenduaren 3an, 12:30ean egingo den Nazioen Jaialdia ikusteko doako gonbidapenak (Foru Komunitatean dauden beste herrialde batzuetako elkarteen eskainitako folklore-jaialdia), areto horretako leihatilan banatuko

Nafarroako Egunaren Gazte Jaialdiaren kartela.